

"KARABANA" IRRATSAIOA**Erantzun itzazu hurrengo galderak****ikas**

1.- Zertarako gonbidatu dute Oihane Garzia?

2.-Zein da "Gerrena plat" taldearen azken diskoa ?

3.- Aukeratu erantzun egokia:

	Diskoa grabatu dute aberatsak direlako.
	Haien ametsa lanbro artean galdu da.
	Diskoetxe batek nahi zutena proposatu zien.

4.- Zer esan nahi du: "Ez da marka makala!"?

5.- Aukeratu erantzun egokia:

	Hasieran ez zuen panderoa asko jotzen bizilagunak buruko mina zuelako.
	8 urterekin izena eman ondoren Iruñetik kanpo ikasi zuen.
	Trikitixa eskolan apuntatu arte ez zen panderoa jotzen hasi.

6.- Zein da Oihanaren lanak duen alderik txarrena?

	Zurrumbilo batean murgilduta dagoenez ezin da igerilekuan murgildu.
	Ez du alde txarrik, besteek lan egiten dutenean bera libre dago eta.
	Ez ditu lagunak nahi adina ikusten asteburuan lan egin ohi duelako.

7.- Zertarako pentsatu dute karabana bat hartzea?

8.- Zuk zer nahiago duzu, Oihanek orain egiten duena edo panderoa astinduko ez balu egingo lukeena? Zergatik?

9.- Noiz esaten dugu "eutsi goiari"?

	Norbait erortzen ari denean.
	Norbaiti adore eman nahi diogunean.
	Norbaitek aldaketaren bat egin nahi duenean.

10.- Zer testu mota da?

	Narrazioa
	Elkarrizketa
	Instrukzioak